



**EMAKUME ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO I.PLANA**

*- ZAMUDIO -*

*2010-2012*

---



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## AURKIBIDEA

1	AURKEZPENA .....	3
2	ERREFERENTZIATZAT HARTUTAKO ESPARRU ARAUEMAILEA .....	4
3	PRINTZIPIO OROKORRAK .....	8
3   1	Oinarrizko printzipioak .....	8
3   2	Udal mailan berdintasun-politikak ezartzeko estrategiak .....	8
3   3	Ardatzak eta arloak .....	9
4	METODOLOGIA .....	12
5	PLANAREN EZAUGARRIAK .....	13
6	PLANA EZARTZEKO HARTUTAKO NEURRIAK .....	14
7	AURREKONTUA .....	15
8	PLANAREN KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA .....	16
8   1	Planen kudeaketaren aurrekariak .....	16
8   2	Urteroko Plan eraginkorrak .....	17
8   3	Jarraipena .....	18
8   4	Ebaluazioa .....	18
9	ERANSKINAK .....	19



## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

### 1 AURKEZPENA

---

Zamudioko Udalak argi eta garbi du udalerriko emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatu beharra dagoela. Eta aukera-berdintasun hori ekonomian, politikan eta gizartean parte hartzeko oztopo sexista guztiak ezabatzen direnean lortzen da.

Uste oso horretan oinarrituta, Udalak Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Planaren bidez egun dauden desberdintasun eta diskriminazioak ezabatzeko oinarriak finkatzen hasi nahi du. Halaber, emakume eta gizonen gizarte bizitzaren maila (ekonomia, politika, gizarte partaidetza, erabakiak hartzea, baliabide eta ondasunak eskuratzea...) eta ekintza (prestakuntza, enplegua...) guztietan parte hartzeko ahalmena izatea bermatu nahi du Udalak.

Lehenengo Plan honen bidez, gure udalerriko emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna ezartzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteari ekingo dio Udal honek.

Hori dela eta, datozen orrialdeetan Zamudioko Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Plana aurkeztuko dugu. Baina lehenago agiriak duen egitura zehaztuko dugu. Izan ere, honelaxe antolatu dugu: erreferentziatzat hartutako esparru arauemailea, printzipio orokorrak, metodologia, Planaren ezaugarriak, hartutako neurriak, aurrekontua eta Planaren kudeaketa zein ebaluazioa.



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## 2 ERREFERENTZIATZAT HARTUTAKO ESPARRU ARAUEMAILEA

Nabarmena da, genero-berdintasuna bultzatu nahi badugu, ezinbestekoa dela lege eta arauen bidez eskatzea administrazio publikoak zein berariaz tokiko administrazioak horretara egokitzeko.

Azken urteotan, administrazioan aukera berdintasuna sustatzeko araudiak eta ekintza positiboko planak gauzatu dira Europan, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

Emakumeen eta gizonen **berdintasun-printzipioa**, baita sexuaren ziozko edozein bereizkeria-mota beren-beregi debekatzea ere, hainbat arau juridikotan daude jasota eta horiek oinarritzat hartu ditugu berdintasunaren aldeko Plan hau eta horren diagnostikoa egiteko:

- **Emakumearen aurkako bereizkeria-era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak** (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten kideek: "printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea".
- Bestalde, 1999ko maiatzaren 1ean **Amsterdamgo Ituna** indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.
- **Tokian Tokiko Bizitzan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Gutun Europarrak** toki gobernuek berdintasun printzipioa publikoki beren gain har dezaten sustatzen du, eta Gutunaren printzipioak toki mailako lurralde horretan gauzatzea ere bai. EUDEL Gutun horren kideetako bat da eta bere abiapuntuko premisa, berdintasunari dagokionez, hauxe da: "pertsonek oinarritzeko eskubidea da eta garrantzi handiko balioa demokraziarako". Herriarregandik hurbilago dauden tresnak behar dira horretarako.
- **Euskadiko Autonomia Estatutuaren** 9.1 artikulua, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen ditu. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikulua hauxe adierazten du: herri aginteez betebeharra dutela pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta



## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

hori lortzeko oztopoak ezabatzeko, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin.

- **Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen 7/1985 Legeak** ezartzen du udalerriek, emakume sustapenaren arloan, beste administrazioen jardueren ekintza osagarriak egin ditzaketela.
  
- **Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea** maila goreneko araudia da, eta generoen arteko berdintasunari dagokionez, planteamenduak eta helburuak zehazten ditu. Lege horrek jauzi kualitatibo handia ematen du zeharkakotasunaren edo generoaren mainstreaming-aren aplikazioan. Lege horren aurrekoek "emakumearentzako" berariazko politikak proposatzen zituzten. Baina, 4/2005 Legean berariazko aipamena egiten zaie tokiko administrazioei, eta udalak bete-betean harrapatzen ditu. Atariko tituluaren 2. kapituluaren 10. artikuluan honela dio:

*"Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan".*

Bestalde, I tituluaren 7. artikuluan betebeharrak hau egotzen zaio tokiko administrazioari:

1. *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, eginkizun hauek betetzea:*

- a) **Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea**, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia integratze aldera.
- b) **Toki-eremuan** ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- c) **Toki-eremuan programak egitea**, Jaurlearitzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan **eta foru aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan**.
- d) **Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko**.
- e) **Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea**.



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

**f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz** sentsibilizazio-jarduerak egitea.

**g) Toki-araudia nolako den eta nola aplikatzen den** begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

**h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea** emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

**i) Bereizkeria anitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea**, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

**j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea**, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

**k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea**, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

**l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea**, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

**m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.**

2. Toki-administrazioek aurreko paragrafoan aipatzen diren eginkizunak benetan bete ditzaten laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetzeta teknikoa eskainiko die, eta foru-administrazioek ere beharrezkoak diren sustapen-neurriak hartuko dituzte.

Azkenik, II tituluko, "Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Planak", 15. artikulua honela dio:

"Foru aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi zein giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute. Udalek banaka zein kide diren edo ondorio horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bidez egin ditzakete jarduketara horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta dagokion foru aldundiaren laguntza ekonomikoa izango dituzte, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenek".



**Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012**

- Bestalde, Emakundek 2007an argitaratu du 2006an onetsiriko **Euskal Autonomia Erkidegoan Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Plana**. Plan horrek bere baitan hartzen ditu VIII. legealdian euskal botere publikoen jarduna bideratuko duten jarraibideak. Plan hori, aurreko hiru planen indarreko urteetan izandako bilakaeraren eta aurrerabidearen ondorio da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2205 Legea onartuta sortu den esparru berrian.

Toki administrazioek egun erronka hau dute: berdintasun arloan duten plangintza arau eta erreferentziako agiri horiek guztiek ezartzen duten egiturari eta plangintzari egokitzea. Era berean, horien helburua da emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren eskubidea esplizituki onartzea.



## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

### 3 PRINTZIO OROKORRAK

---

#### 3 | 1 Oinarrizko printzipioak

---

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako oinarrizko printzipioak hartzen ditu funtsean Zamudioko Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Planak. Printzipio horiek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko dute. Ondorioz, Zamudioko I. Berdintasun Plana honako printzipio hauetan oinarrituko da:

- Tratu berdina
- Aukera-berdintasuna
- Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea
- Genero-ikuspegiaren integrazioa
- Ekintza positiboa
- Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea
- Ordezkaritza orekatua
- Koordinazioa eta lankidetzatza

Horiek guztiak udalerrian garatuko diren berdintasun-politikoak gidatu, iradoki, diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko baliagarriak izango dira.

#### 3 | 2 Udal mailan berdintasun- politikak ezartzeko estrategiak

---

Zamudioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Plan hau lantzean, udal mailan berdintasun-politikak ezartzeko bi estrategia azaleratzen dira: mainstreaminga (zeharkakotasuna) eta ekintza positiboa.

- Politika publiko guztietan genero-ikuspegia edo mainstreaminga txertatzeak politika publiko guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko oinarrizko xedea txertatzea eragiten du. Horretarako, kontuan hartzen dira batzuen eta besteen baldintzak eta jarrerak, diseinutik hasita ebaluazioaren faseraino. Helburua da erakundeko guztiek genero-politikak diseinatzeko gaitasun nahikoa izatea, eta abiapuntua genero-desberdintasunak txikitzea eta errotik kentzea litzateke. Estrategia hau ezinbestekoa da, berdintasunaren gaian erakundeko sail edo alor guztien jakintza nahiz





## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

inplikazio maila areagotzen duelako, eta ondorioz, horiek lortzeko beharrezko diren helburuak eta zereginak eskuratzen direlako.

- Bestalde, ekintza positiboaren gaineko neurri zehatz eta behin-betikoak hartzen dira, alor ekonomiko, politiko, sozial eta kulturean egun dauden desberdintasunak murrizteko edo ezabatzeke, eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin. Hori guztia garrantzitsua da; izan ere, oinarrian dituen diagnostikoak argi eta garbi azaltzen dituen komunikazio prozesu egokiarekin bat eginda, agerian uzten ditu gaur egun dauden ezberdintasunak eta, baita ere, horiei aurre egiteko eta berdintasuna modu eraginkorrean bultzatzeko hartu beharreko neurriak.

### 3 | 3 Ardatzak eta arloak

---

Lau estrategia ardatz eta zazpi arlotan oinarrituta antolatu dugu Plana. Ardatz eta arlo horiek Plan honek ezartzen dituen helburuak lortzeko landu behar diren funtzio esparruekin bat datoz.

#### 3 | 3 | 1 Estrategia ardatzak

Landuko diren berdintasun-politiken arloan lehentasunezko gaiak zeintzuk diren definitzen dute estrategia ardatzek. Zehazkiago esanda, Zamudion 2006an onetsiriko Euskal Autonomia Erkidegoan Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Planak zehaztutako lau ardatzak erabiliko dira; izan ere, Plan horrek VIII. legealdian zehar berdintasunaren alorrean euskal botere publikoen ekintzak bideratzeko ildoak islatzen ditu.

- **ZEHARKAKOTASUNA.** Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialeko Batzordeak 1987. urtean proposatu zuen lehen aldiz mainstreaminga edo zeharkakotasuna. Emakumeak garapenaren "korrante nagusian" integratzeko helburua duen ikuspegi politikoa da (genero-ikuspegitik metodologia, azterketa, politika eta plangintza guztietan eragiteko beharraren onarpena). Horren berehalako helburua emakumeen gizarte- eta ekonomia-egoera hobetzea da. Edozein ekimeneke (legeak, programak edo politikak direla) edozein maila eta esparrutan, gizonen eta emakumeen bizitzengan izango duen eragin bereiziaren diagnosia da. Esparru politiko, ekonomiko eta sozial guztietako politikak eta programak diseinatzean, ezartzean, gidatzean eta balioztatzean emakumeen eta gizonen interesek, beharrek, ardurek eta esperientziek dimentsio bakar eta integrala osa dezaten helburua duen estrategia da; horrela, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak errepikatu eta betikotu ez daitezten.



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

- **EMAKUMEEN JABETZEA ETA GIZARTEAN ETA POLITIKAN PARTE-HARTZEA.** Egungo gizarteak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko urrats nabariak eman baditu ere, botere, baliabide eta onuretan ezberdintasun nabariak mantentzen ditu oraindik ere. Egoera horrekin eta gizartean nagusi diren hierarkia harremanekin apurtu eta boterea berronkatu behar da. Horrenbestez, ezinbestekoa da emakumeek boterea eskuratzea, betiere boterea emakumeen erabateko autonomiaren (fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta soziokultura) eta herritartasunaren ikuspegitik ulertuta.
- **BIZIMODUAK BATERATZEA ETA ERANTZUNKIDETASUNA.** Asmoa da norberaren, familiaren eta laneko bizimoduak bateratu ahal izatea, gizonezkoek etxeko lanetan daukaten erantzunkidetasuna sustatuta, enpleguaren egiturak norberaren eta familiaren beharretara egokituta eta komunitate- eta gizarte-zerbitzuak hobetuta. Bateragarritasunak ahalbidertzen du gizon-emakumeek bizitza pertsonala, lana eta familia orekatu ahal izatea. Beraz, hiru alor horietako betebeharrak eta funtzioak gauzatzeko tarteak hurreratu, baimendu, uztartu, bat egin, faboratu, ahalbidertu eta adostu behar dira, rolak eta genero-estereotipoak gaindituta.
- **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA.** Ardatz hau zehatzago zuzentzen da indarkeria sexistaren kontra eta, horretarako, hainbat neurri eta baliabide ezartzen du. Indarkeria sexistakoak dira sexu ziozko indarkeriazko egitate guztiak, baldin eta, horren emaitza gisa, kalte fisiko, sexual edo psikologikoa egiten bazaio edo sufrimendua eragiten bazaio emakume bati, horren barruan daudelarik hori guztia egiteko mehatxua, derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, hala eremu publikoan nola pribatuan.



## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

### 3 | 3 | 2 Esku- hartze ildoak

Arloak esku-hartzeko eremuak dira, eta horien bidez berdintasunaren alde jardungo dugu. Hona hemen Zamudioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren Aldeko Udal Plan honi begira definitu ditugun arloak:

1. Tokiko Administrazioa (Udala)
2. Hezkuntza
3. Kultura eta Kirola
4. Enplegua, Sustapen Ekonomikoa eta Prestakuntza
5. Osasuna
6. Gizarte Ekintza
7. Hirigintza, Garraiobideak eta Ingurumena

Zamudioko Udalak ez du eskumen zuzenik aipatu alor guztietan; batzuk Mankomunitateak edo bestelako erakunde publikoek emandako zerbitzuak dira. Hala eta guztiz ere, alor horiek ere kontuan hartzea erabaki dugu; izan ere, Plan honetan proposatutako helburu eta ekintzak eskumena duten erakundeei eskatu behar zaizkiela argi dugu. Gainera, tokiko korporazioak egindako lanarekin batera, hainbat gaitan emakume eta gizonen egoerari buruzko informazioa landu eta hedatu behar da. Informazio horri esker, egun dauden ezberdintasunen gainean herritarrengan ezagutza eta sentsibilizazioa barreiatu ahal izango dugu.



## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

### 4 METODOLOGIA

---

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearekin batera, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 2008an "Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko parte hartzailea" landu zuen.

Diagnostiko horren bitartez, bai udalerrietan, bai eskualde osoan emakume eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna benetakoa izateko pausuak ematen hasi nahi zuten Mankomunitatea osatzen duten udalerriek. Era berean, etorkizunean Ekintza Planak lantzeko oinarria finkatzen hasi nahi zuten.

Lehen urrats horrek sexuen berdintasun erreala lortzeko konpromiso nabaria zuela argi eta garbi adierazteko asmoa zuen.

Egindako diagnostikoaren arabera, Zamudioko Udalak 2008an berdintasunerako udal politika garatzeko konpromiso sendoa berretsi zuen. Hori dela eta, Behargintza Txorierriren aholkularitza eta lankidetzarekin batera Berdintasun Plana diseinatzen hasi zen.

2008. urtearen bukaeran, azaroan eta abenduan, politikari eta teknikariei lehenengo zirriborroa aurkeztu genien. Gainera, Behargintza Txorierriko proposatutako helburu eta ekintzak erkatzeko beharrezkoak ziren tresnak landu zituen.

Planaren zirriborroak politikarien eta teknikarien ekarpenekin osatu ostean, bigarren zirriborroa udalerriko gizarte agenteen laguntzaren bidez erkatu genuen.

Udalerrian egindako erkaketa parte hartzailean, Zamudioko herritarrek, elkarteek eta "Lagunandre" emakume elkarteak parte hartu zuten. Azken elkarte horrekin bilkura ugari egin genituen Planaren diseinua eta lanketa bultzatzeko. Partaidetza sustatzeko, plana ezagutarazteko bideak erabili genituen, kasurako, udalerriko etxeetara alkatetzak igorritako eskutitz pertsonalatuak. Horrela, Udaleko web gunean ekarpenak eta bestelakoak egiteko aukera eman genien hiritarrei.

Bukatzeko, azken erkaketan jasotako ekarpenekin Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Plana egin dugu eta horrek emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko irizpideak markatuko ditu.



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## 5 PLANAREN EZAUGARRIAK

---

Zamudioko Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Planak honako ezaugarri hauek ditu:

- **Hiru urtez** egongo da indarrean, hau da, 2010-2012 urteetan garatuko da plana izango da.
- Konpromiso politikotik datorren plana dugu. Borondate politiko hori Planean proposatutako ekintzen bideragarritasuna bermatzen duen aurrekontu konpromisoan zehaztu da.
- Plana **malgua eta irekia** da. Martxan jartzen den heinean aldaketak egin ahal izango dira.
- **Ebaluatu daitekeen plana** da; izan ere, ebaluaketa sistema eta aurreikusitako helburuetarako adierazteak proposatzen du.
- Ardatz estrategikoak, esku hartze arloak, helburu orokorrak eta zehatza, eta ekintzak proposatzen ditu, udal sailek eta horietako arduradunek aurreikusitako epean garatzeko.
- Udalerrinari onura eragiten dion tresna da eta horrek politika, teknika eta hiritarren konpromisoa ondorioztatzen du.



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## 6 PLANA EZARTZEKO HARTUTAKO NEURRIAK

---

Gure udalerriko gizarte errealitatera moldatutako berdintasun-politikak diseinatzeko prozesua da, hau da, Udalak berdintasunaren arloan norantz jo nahi duen ezartzeko fasea da.

“Plana ezartzeko hartutako neurriak” izeneko atalean, diagnostikotik lortutako informazioan oinarrituta, epe labur eta ertainean neurtu ahal diren helburu orokor eta zehatzak definitzen dira. Halaber, honako hauek zehazten dira: esku hartze arloak, neurri zehatzak (ekintzak), kronograma, sail arduradunak, gai honetan nahasitako sailak eta ebaluazio adierazleak (Ikus 2. eranskina).



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## 7 AURREKONTUA

---

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana martxan jartzeko, Zamudioko Udaleko aurrekontu ekonomikoa 2010.rako 55.000 €-koa da.



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## 8 PLANAREN KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA

### 8 | 1 Planen kudeaketaren aurrekariak

Zamudioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana egokiro martxan jartzeko, eta Planaren jarraipen eta ebaluazioaren prozesua modu zuzenean egiteko lau kudeaketa-egitura erabiliko ditugu. Hasierako bi egiturak dagoeneko abian jarri ditugu eta beste biei 2010ean ekitea espero dugu.

- **Talde eragilea – Berdintasun Zerbitzua:** Berdintasun zerbitzuak, Berdintasun Saileko zinegotzi arduradunak eta alkatetzak osatzen dute. Talde honen funtzioa Plana ezartzeko betebeharrak guztiak koordinatzea da, hau da, kudeaketa egokia lortzeko prozesu guztiak eta Planaren emandako helburu eta ekintza zehatz guztiak garatzea. Zehazkiago esanda, honako hau egingo du:

- Planaren bultzada eta koordinazioa
- Plan honetan parte hartzen duten agente guztien arteko elkarriketak
- Informazioa eta komunikazioa
- Aholkularitza eta prestakuntza
- Jarraipena eta ebaluazioa

Bestalde, aipatzekoa da lan-talde hau 2009. urtean zehar hasi zela lanean; izan ere, funtzionamendua zuzenduko duten oinarriak pasa den urtean finkatu genituen. Hori dela eta, dagoeneko hasi da Plana bultzatzeko eta koordinatzeko funtzioak lantzen.

- **Sailen arteko talde politikoa:** jarraipen eta bultzadarako egitura politikoa da. Talde honetan, 2008tik abian dagoen Zamudioko Berdintasunerako Foro Politikoko kideak daude eta kide horiek dira. Horiexek dira, hain zuzen ere, erabaki estrategikoak hartzeko erantzukizun eta gaitasun politikoa dutenak eta Plana ezartzeko prozesuan nahasitako erakundeko Sail guztiak ordezkatzeko dituztenak. Talde horren funtzioak hauexek dira:

- Administrazioaren alor guztietatik garatzen diren berdintasunaren gaineko erabaki politikoak koordinatzea.
- Informazio egokiaren bitartez, inplikazio politikoa erraztea eta sustatzea.





## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

- **Sailen arteko talde teknikoa:** sailen arteko koordinazio-egitura da. Berdintasun neurriak garatzen dituzten sailtako kideek osatzen dute eta taldearen helburua hauexek dira:
  - Norberaren sailean berdintasuna lortzeko diseinu, ezarpen eta ebaluazio zereginetarako koordinazioa erraztea.
  - Hobekuntzak, aldaketa-proposamenak, Plana malgutzeko irizpideak, etab. proposatzea.

Talde eragilea hasi da teknikariek harremanak izaten, lan-talde bakoitzeko partaideak izendatzeko asmoarekin.

- **Emakume eta gizonen partaidetzarako gunea:** herritarren partaidetzarako egitura da. Bete beharreko funtzioak honako hauek dira:
  - Ezarpen prozesuan proposamenak egitea eta lankidetzan aritzea.
  - Planaren jarraipenean eta kontrolean parte hartzea.
  - Berdintasun unitateak ebaluatzea eta horiei aholkuak ematea.
  - Iritziak eta analisisa egiteko gaitasuna sortzea.

## 8 | 2 Urteroko Plan eraginkorrak

---

Urtero agiri eraginkorra landuko da eta horretan hauxe zehaztuko da: urte horretan zehar garatuko diren helburuak eta ekintzak, alor eta sail arduradunak, langile erantzuleak, honetan nahasi beharreko gizarte agenteak, ekintzak garatzeko denbora-tarteak eta ekintza horiekin lotutako aurrekontua.

Programazioa egiteko, prozesu hau oinarritzko beste bi prozesurekin koordinatzeko beharra kontuan izango dugu. Oinarritzko beste bi prozesu horiek hauexek dira: Udaleko aurrekontuak eta Planaren urteroko ebaluazioa. Horrenbestez, Planaren urteroko programazioa urtearen bukaeran egingo da eta prozesu hori udal aurrekontuan programatutako erritmo eta tarteekin koordinatuko da.

Zamudiori dagokionez, urteroko programazioaren lanketa talde sustatzaileak bultzatu eta koordinatuko du. Era berean, Batzorde Teknikoak, Herritarren Partaidetzarako egiturak eta Batzorde Politikoak ere prozesu horretan esku hartuko dute. Lehenengoa, jorratu beharreko neurriak zehazteko oinarritzko informazioa emango du; bigarrenak, aurkeztutako urteroko programazioa erkatzen lagunduko du; azkenik, hirugarrenak, urteroko plan eraginkorrak balioztatuko ditu.



## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana 2010-2012

3. eranskinean Ekintzen Programazio-fitxa dago. Fitxa horrek urteroko programazioak garatzeko informazioa bilduko du.

### 8 | 3 Jarraipena

---

Aldian-aldian, Planaren jarraipena egingo dugu, urteroko plan eraginkorraren ezarpen-maila zein izan den jakiteko, hau da, zehaztutako kronograma, aurrekontuan eta espero ziren emaitzekin bat datorren aztertze. Gainera, Plana ezartzean lortutako arrakasta, aurkitutako oztopo eta horiek gainditzeko mekanismoen inguruko aholkularitzarako eta hausnarketarako gunea sortuko dugu.

Talde sustatzaileak (egun lanean ari den taldea) urteroko Planaren jarraipen-prozesua koordinatu eta dinamizatzen du, Batzorde Teknikoarekin batera. Batzorde horrek aldez aurretik beharrezko informazioa ematen dio eta talde sustatzaileak programatutako jarraipen batzarretan parte hartzen du. Horietan honako hauek lantzen ditu: hausnarketak, Planaren indargune nahiz ahulezien inguruko azterketa, aldatzeko beharrei buruzko ikuspegi eta iradokizunak, hobetzeko arloak, etab.

Planaren jarraipena sei hilean behin egingo da, urteroko programa indarraldian dagoen bitartean.

4. eranskinean, Ekintzen Jarraipen-fitxa dago erantsita. Talde sustatzaileak onetsitako tresna da, informazioa bildu ahal izateko.

### 8 | 4 Ebaluazioa

---

Aintzat hartuta, Planaren betetze-maila eta gauzatutako ekintzek izandako irismena aztertze ebaluazioa ezinbesteko prozesua dela, Planaren betetze-maila eta lortutako xedeak ebaluatzean oinarrituko da Zamudioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana.

Bestalde, Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 5.d artikulua arabera, botere politikoek gauzatutako berdintasun-politikak aztertze beharra du Emakundek. Hori dela eta, Zamudioko Udalak urtero Planaren aurrerapena helarazi behar dio Emakunderi, ebaluazio-txostena igorrita.

Urtero eta Planaren indarraldia bukatutakoan, horren betetze-maila aztertze ebaluazioa egingo da eta talde sustatzaileak Planaren emaitzak aztertuko ditu. Azken finean, proposatutako helburuen arabera gizarte-errealitatea zenbateraino aldatu den ebaluatu behar da.



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## 9 ERANSKINAK

---



**Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012**

# I. ERANSKINA



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## II. ERANSKINA



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## III. ERANSKINA



Emakume eta Gizonen  
Berdintasunerako I.Plana  
2010-2012

## IV. ERANSKINA